

KOMUNIKAZIO DIGITALA

Txantxa hutsala mezu politiko bihurtu eta zuzenean iristen da meme moduan

Komunikazio digitalaren zati garrantzitsu bihurtu dira memeak. Iru-di horiek, normalean balio tekniko eskaseko fotomuntaketak eta formetan eta egituran errepikakorrek direnak, abiadura handian ibiltzen dira sare sozialetan eta mezularitzako aplikazioetan, egunerokotasuna umore kutsuz bustitzeko. Ezequiel Soriano, Universitat Oberta de Catalunya (UOC) Humanitate eta Komunikazio doktoregoko ikasleak, azaldu duenez, «Interneten egoteko modu bat dira, inauterietako kosmobisio digital moduko bat, zintzotasunari iseka egiten diona, serioa dena hutsaltzen duena, estatikoa dena hautsi eta online interakzioei ironia geruzak gehitzen dizkiena».

Interneten dabiltzan meme gehienak umoretsuak diren arren, umore beltza eta gustu txarrekoak barne, memeei buruzko UOCren azterlanak eduki politikoko memeak ikertu ditu, eta kausa politiko zehatzetarako balio dezaketela baieztatu du, komunikazio prozesuen zati gisa.

Ezequiel Soriano zehaztu duenez, zirkulu itxietako pertsonen arteko «online komunikazio moduak» dira –lineako eztabaida foroak, esaterako–, eta berezko «txantxak, jokoak eta sinboloak» partekatzen dituzte, batzuetan ingurune naturala gaingitu eta biralizatuz. «Meme horiek umorea bilatzen dute, baina antzeko pertsonen komunitateak ere sortzen dituzte, txantxa zentzugabe, bihurri edo burutsu berberak partekatzen dituzten frikien komunitateak», nabarmendu du Soriano iker-tzaileak.

 **KOMUNIKAZIOA** / GAUR8

Memeak komunikazio digitalaren parte garrantzitsu bihurtu dira. Azkartasuna eta okurrentzia dituzte abiapuntu, eta uste baino urrutirago iristeko gaitasuna, bertute. Meme politikoak aztertu ditu UOCko ikerlan batek eta ondorioa garbia da: txantxa hutsala baino gehiago dira eta politikoki eragiteko gaitasuna dute.

Azterlan batzuek umorea komunikazio gaitasunen hobekuntzarekin eta mezuen inpak-tu handiagoarekin lotzen dute. Horregatik, memeen erabilera mundu digitaleko umore modu nagusietakoa izan daiteke, eta alderdi politikoentzat, komunikazio tresna garrantzitsua.

«Alderdi horietako komunikazio arduradunek memeen logikaren baitako umorezko irudiak sortzen dituzte, ondoren sare sozialetan anonimoki zabaltzeko», argitu du ikertzaileak. Hain justu, anonimotasun hori da arrakastaren gakoetako

bat, «zuzenean ez daudenez alderdi politiko bati lotuta, komunikazio herrikoia-aren kodeetan errazago txertatzen dira».

Bide horretatik sortu da «Politigram» bezala ezagutzen den fenomeno. «Umore politikoko ekosistema bat, memee- tan oinarritua. Ekosistema hori ez da inongo alderdi politikotan oinarritzen, baizik eta erabiltzaileengan, ziurrenik adinik gabeko nerabeengan, politika instituzionaleko parte hartzaile bihurtzen direnengan».

Adituen esanetan, «iruzur- gileen eta bromazaleen» azpikul-

Umoreak asko hobetzen du komunikazio gaitasuna, eta horregatik iristen dira hain zuzen hartzailearengana memek.
GETTY IMAGES

tura bat da, muturreko artea askatasunez bizitzeko espazio bat. «Garrantzirik gabeko txantxak baino gehiago, memoriaren dinamika azkarra eta umorezkoa oso ondo ulertzen duen dinamika bat da», nabarmendu du ikerketak.

Meme kultura bezala defini daitekeen horretan, komunikatzeko moduak ez daude beti alde aurretik ezarrita. «Meme-komunitateak anitzak dira eta, memeak bezala, iragankor- rak», nabarmendu du Soriano. Iker-tzaileak ukatu egin du memea irudi barregarri «anonimo eta biral» bat baino ez dela. «Uste dut interesgarriagoa dela proposatzen digutenaren inguruan pentsatzea. Memoriaren azkartasunak, ahokotasunak eta an-bibalentziak gure artea, komunikazioa, literatura edo politika egiteko moduak birpentsatzen lagun diezagukete», dio Soriano, memek testuinguru politikoan duten komunikazio po- tentziala aztertzeko.

UOCko ikertzailearen lanak memearen figura umorezko irudi biralaren kontzeptutik har- ratago kokatzen du, eta agerian uzten du fenomeno sakonagoa dela, sustraia interneten inter- aktibitatean eta mundu digita- lak berekin dakartzan pertso- nen arteko komunikazio modu berrietan oinarritzen dituen.

Albiste faltsuak manipulazio tresna bihurtu diren une hone- tan, batez ere hauteskunde ga- raian, memea «txantxa pribatu» gisa ikustetik haragoko begirada proposatzen du iker- ketak. Horrela, herritarrei me- meak gizartean duten tokian kokatzeko tresnak eskaintzeko formulak aurkitu ahal izango dira: komunikazio bide urra- tzaile eta desinhibitu berri bat edozeinen eskura, bai modu ak- tiboan, bai pasiboan, kontsumi- tzaile gisa.

